

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: AMAÑA.

Saila	Laburpena
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du irristatzearen aurkako produktu bat emateko Arregieta inguruko kutxatilen estalkietan. Dioenez, pendiz handiko kale bat izanik, garrantzitsua da produktua aplikatzea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio euri asko egiten duenean, gainezka egiten duela Arregieta 5 eta 7 zenbakien artean dagoen lursailaren kanalizazioak, urak herrestan daramatzen hondarren ondorioz. Aipatzen du, gainezka egitean, ingurua urez betetzeaz gain, harriak eta bestelakoak lagatzen dituela galtzadan.
Zerbitzuak	Pertsona batek kexa jarri du Amaña Wenceslao Orbea kalearekin lotzen duen igogailua beti egoten delako zikin. Haren ustez, kabinak eta sarbideetako hormak astean bi aldiz garbitzea ez da nahikoa, jende askok erabiltzen baitu igogailua, eta, gainera, amaraunak daudela dio. Garbiketa sakona eskatu du eta toki horiek desinfektatu daitezela.
Zerbitzuak	Auzokide batek esan du bonbilla bat dagoela erreta Wenceslao Orbea kaleko igogailurako sarbidearen inguruan, eta aldatzeko eskatu du.
Zerbitzuak	Kexu da Amaña eta Wenceslao Orbea lotzen dituen igogailuaren inguruan lirdinga dagoelako eta jendea irristatu egiten delako.
Zerbitzuak	Amañako 9 zenbakiko etxepekoek salatu dute etxeen ondoan dagoen euste-hormari ura dariola aspalditik, eta egoera horrek hezetetasunak sortarazten dituela higiezinan. Diotenez, eurak izan dira sasiak kentzen eta horma txukuntzen ibili direnak, baina dagoeneko ezin dutela egin, eta Udalari hura garbitzea eta goroldioa eta sasiak kentzea eskatzen diote. Gainera, esan dute zomorroak erakartzen dituela, batez ere uda partean.
OBRAK:	Asola-Igartzako auzotar batek aparkatzeko soluzioak eskatu ditu Amañarako. Eskatu du Arregieta 5 zenbakiaren ondoan, eskolen parean dagoen lokal bat egokitzea, auzoari 10 edo 20 aparkaleku-plaza izatea ahalbidetzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: AMAÑA.

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: AMAÑA.

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: AMAÑA.

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: AMAÑA.

Saila

Laburpena